

# Liburuak

KRITIKA

*Basilika*. Itxaro Borda.  
Susa, 1984.  
102 orrialde. 5,70 euro.



Hemeroteka

Gorka Bereziartua

## Kapagorri lehendakari

GAUZA OSO INPORTANTEAK gertatu ziren 1984ko uztaile hartan. Luzea litzateke denen zerrenda, baina ez genuke ahaztu nahi tartean Itxaro Bordak aurreneko nobela idatzi zuela, eta entzun ditugun gauzen erdiak egia badira, bati baino gehiagori kontrako ezta-rritik joan zitzaioala, ez arrazoi literarioengatik preseski. 25 urte beranduago heldu diogu *Basilikari*, ikusteko ea oraindik polemikoa izaten jarraitzen duen; jakiteko zergatik bihurtu zen liburu hau *Necronomicon* txiki bat euskaldun batzuentzat.

Apaindura gehiegirik gabe, euskara informalean, ia kazetari baten estiloan idatzia dago *Basilika*, eta esan genezake gertakari baten kronika surrealista dela, ala gertakari surrealista baten kronika. Jon Kapagorri eta Elorri Bazterre ditu protagonistak: Kapagorrik, Frantziako parlamenturako hautatu duten diputatu gorria bera, Euskal Herriko egoera hobetzeko egitasmo bat du buruan; mirakulu bat behar du horretarako, Lourdesekoaren antzekoa; eta mirakulua gauzatzeko amarru bat, Ama Birjina ikusiko duen neska bat, Elorri Bazterre, alegia.

“Mirakulua” egin eta berehala hasi da diru-iturria: Irulegin, Ama Birjina agertu den lekuan, Basilika eraiki dute; inguruan lau ospitale, hamar hotel, bi kasino, putetxe bat... Nahikoa euskal jendei lana eta bizia emateko. Gainera, Elorri Bazterre “hil” ondoren –Luzaidera eramango dute ezkutuan Kapagorrik eta lagunek– santu berri bat izango du Euskal Herriak, eta are jende gehiago hurbilduko da Irulegira, tartean Frantziako presidentea eta Aita Santua. Ez dira falta nobelan pertsonaia euskaldun ezagunen agerpenak ere: Luzien Etxezaharreta, Daniel Landart, Manex Pagola...

Dagoeneko igarriko zenuenez, parodia handi bat da *Basilika*, ironia sulfuriko hutsa, une batzuetan Monty Pythonen *Life of Brian* filmeko pasarteak gogora ekartzen dituena. Euskal Herri tradizionaleko koadro kostunbristek talka egiten dute marihuanarekin, prostituzioarekin, homosexualitatearekin, mundu garaikidearekin oro har. Kapitulu kapitulu collage haluzinatu bat eraikitzen ikusten dugu Irulegiko Basilikaren inguruan, gag ugari, egoera sinesgaitz asko, barre egiteko eszenak oro har.

Baina akats handia litzateke Bordaren lehen nobela izan zen hau testu irriarriaren etiketara mugatzea. Barrearen atzean ezkututzen da kritika zorrotza, gazte batek egina –25 urteren bueltan zebilen idazlea liburuak publikatu zenean– bere inguruko gizarte, politika eta kultur eredu oro kolokan jartzeko. Ikuspegi horretatik harrigarria da mende laurden beranduago testuak gordetzen duen freskotasuna. Gauzak asko aldatu ez diren seinale? Kapagorri bozka eman izan bagenio... ■

## Xarles Videgainen ipuinak

Duela gutxi euskaltzain oso izendatu dute Xarles Videgain, eta duela gutxiago ipuin liburu bat argitaratu du Elkar argitaletxearen eskutik: *Laminosine, 80 ipuin labur* da lanaren titulua, eta han hemenka bildu dituen ipuinak biltzen ditu. Batzuk ezagunak dira, Azkuek, Barandiaranek, Vinsonek, Trebitschek eta enparauk bilduak zituzten lehena-go; beste batzuk berriz, egileak berak bildu

ditu Oztibarren, Ur-diñarben, Larrainen eta beste hainbat herritan. Dena dela, egileak argi du horiek liburuan biltzea zubi lana egitea dela: “ez ahantz lehenik haurrek nola adineko jendeek entzunak izateko jin eta jitekoak direla”. Videgainen, gure aitzinekoek utzi jakitaita gure ondorengoek ezagutzeko osatu du bilduma hau. ■



*Laminosine*.  
Xarles Videgain.  
Elkar.  
121 orrialde.  
11,50 euro.

## Atzerritarrek nola ikusi dituzten euskaldunak

Eusko Ikaskuntzaren *RIEV* aldizkariak bilduma berria hasi du, *Koadernoak* izenarekin, ingelesez. Bilduma horretan argitaratu da Santi Leonék eta Jeremy MacClancyk apailatu duten *Imaging the Basques: Foreign Views on the Basque Country* (Euskaldunak imajinatzen: atzerriko begiradak Euskal Herrian) izeneko lana, Oxfordeko unibertsitatearekin izandako elkarlanaren fruitu. Hainbat egileren artikulua bildu ditu koadernoak, besteak beste Juan Maria Sanchez Prieto, Coro Rubio Pobes, Alex Drace-Francis eta Joseba Gabilondo. Gaien artean, bereziki landu

dute Karlismoa, baita globalizazioa eta europar inperialismoa ere. ■



*Imaging the Basques...*  
Batzuen artean.  
Eusko Ikaskuntza.  
177 orrialde.  
14 euro.